

Irudia: Duisburg, Ruhr bailera Alemania



*Jakina da ekonomiak gure artean eraikuntzarekiko izan duen apustu tinkoa. Kontuan izanik eraikinen erabilerarik probetxuzkoena etxebizitza izan dela, bi faktore horiek gidatu dute lurralde-antolakuntza azken hamarkadan. Horregatik herriguneetako industria-lurzorua egoitzetara dedikatua izan da, industriak lurzoru merkeagoak bilatu dituelarik etxebizitzaren negozioen truk. Dinamika espekulatibo horren paralelo, herrialde aurreratuak deritzenetan hiriek eraldaketa-prozesu argia izan dute zerbitzu eta turismoko gune bilakatzeko aldera, kanpotik datorren turistari begira, turismo-postalaren parte ez dena kanporatuz.*

*Lurralde-ereldaketa hauek industriaren sektorean zehazki izan duten eragina hausnartzera bideratzen da eskuan duzun zenbaki hau. Izan ere, industria-jarduera hirietatik desagertu da, leku egokiagoak lortzearen aitzakiaz maiz edota desagertu egin delako aktibitatea bera. Buzo urdinak desagertuz joan dira herrialde garatuetatik, transformaziorako produkzioaren deslokalizazio-prozesu globala bitartekari.*

*Buzo urdinen tokiko industria amantal zurien aktibitate garbier ordezkatua izan da. Bestalde, industrialde izenarekin lurzoru asko sailkatu eta egikaritu dira azken urteotan (publiko zein pribatuak), non industria-erabilera oso urria den, eta herriguneetatik at bulegoak, biltegiak eta lan-tailerrak kokatu izan dira, ohiko hiri-ereduan hiriaren osaketan parte hartu duten erabilerak kanporatuz. Zeresanik ez, eredu honen bideragarritasuna auto pribatuaren bidezko mugikortasunak eta errepide-sarearen azpiegiturek ahalbidetu dutela. Fenomeno honen pareko, teknologi-parkeak sortu dira gure artean, amantal zuriko industrialdeak alegia.*

*Postindustrializazioaren aroa globala bada ere, Euskal Herrian industriak izan duen paperagatik azterketak balio erantsia baduela iruditzen zaigu. Bizimoduan eta euskal hirien paisaian izan dituen aldaketa bortitzak direla medio. Alde batetik, industria-ondare eraikiaren dokumentazio-lanaren garrantziaz jabetu nahiko genuke, zutik dagoen ondare eta aktibitatearen baloraziolana egiteko dagoelako. Bestalde, hiri-ereduaren ikuspegitik aktibitate ekonomikoaren kokapen egokiaz gogoeta egin beharko da, funtzio mistoetako hiria lortu nahi badugu bederen eta industriaren beraren etorkizunaz galdetu behar diogu geure buruari. Azkenik, herriguneetan gelditu diren industria-lurzoruak etorkizuneko hiriaren abagune-espazioak direla onartuz, esangura garaikideak definitzeko esperimentu bilakatu daitezke eta gurean diren adibideak jaso ditugu.*

